



Europako  
Batzordea

---

LIBURU ZURIA  
**EUROPAREN ETORKIZUNA**

---

*Hogeita zazpien Europa  
2025ean zer izango den  
gogoetan: agertoki batzuk*



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
PRESIDENCIA



---

## Hitzaurrea

*2017ko martxoaren 25ean, Europar Batasuneko estatu kideetako hogeita zazpi buruzagi Erroman bilduko dira, bakearen eta adiskidetasunaren alde.*

*Denak han biltzea itzelezkoa izango da, inork ez zuen uste izango bazitekeenik ere, sei estatu fundatzaileek Erromako Tratatuak sinatu zituzten garaian, duela 60 urte.*

*Urteurren hau ospatuz, gure aurrekoak gogora ekarri nahi ditugu, ametsetan besterik ez zuten Europa hura egia bihurtu baita da egunotan. Orain arte lortutakoaz harro egon behar dugu, eta batu gaituzten baloreak gogoratu.*

*Baina kapitulu berri baten hasiera ere izan behar du Erromak. Lan eskerga dugu aurretik, gure segurtasuna, gure herrien ongizatea, eta Europak gure mundu gero eta multipolarrago honetan bete behar duen zeregina hobetzeko. Hogeita zazpi estatuko Europa batuak berak taxutu behar du bere patua, eta bere etorkizunaren tankera perfilatu.*

*Europaren proiektuaren kapitulu berri honetarako Europako Batzordearen ekarpena da Liburu Zuri hau. Europak bere bidea hartzeko prozesua jarri nahi dugu martxan. Aurrean ditugun erronka eta aukerak definitu nahi ditugu, eta denok elkar hartuta erantzuteko zer aukera ditugun ikusi.*

*Hurrengo hilabeteetan gure kontinentean (Europako Parlamentuan, parlamente nazionaletan, tokiko eta eskualdeko agintaritzetan, eta gizarte zibilean) landu beharko dugun eztabaida sakona eta gero, ideia hauek garatu eta Europako etorkizunari buruz dituan iritziak azalduko ditut Europar Batasunaren egoerari buruzko hitzaldian, 2017ko irailean.*




*Urte amaieran aurreneko ondorioak ateratzen lagunduko dio horrek Europako Kontseiluari, eta Europako Parlamenturako hauteskundeetarako 2019ko ekainerako garaiz jardun-lerro bat zehazten ere bai.*

*Zer bide hartu erabakitzeko, gogoan izan behar dugu Europa betidanik hobeto moldatu izan dela bat eginik egon garenean, irmo, eta gure etorkizuna elkarrekin eraiki dezakegula sinetsita.*

*Europar Batasunak gure biziak hobetu ditu. Gure ondoren etorriko diren guztien biziak ere hobetzen jarrai dezan lan egin behar dugu guk orain.*

A handwritten signature in blue ink, which appears to be 'Jean-Claude Juncker'. The signature is written in a cursive style with a long horizontal stroke extending to the right.

Jean-Claude Juncker  
2017ko martxoaren 1a 2017



*«Europa ez da behingoan egingo, ez dena  
batera ere: ekintza konkretuetan eraikiko da,  
lehen-lehenik egitezko elkartasuna sorturik».*

*Robert Schuman  
1950eko maiatzaren 9a*



## Aurkibidea

EUROPAKO BATZORDEAREN LEHENDAKARIAREN HITZAURREA	3
1. SARRERA	6
2. EUROPAKO ETORKIZUNARI BULTZADA EMATEKO FAKTOREAK	8
3. EUROPARAKO BOST AGERTOKI 2025	15
1. AGERTOKIA: BERDIN JARRAITU	16
2. AGERTOKIA: MERKATU BAKARRA BESTERIK EZ	18
3. AGERTOKIA: GEHIAGO EGIN NAHI DUTENEK, GEHIAGO EGIN	20
4. AGERTOKIA: GUTXIAGO EGIN, BAINA ZORROTZAGO	22
5. AGERTOKIA: ASKOZ GEHIAGO EGIN, ELKAR HARTUTA	24
4. AURRERA EGITEKO BIDEA	26
ERANSKINAK	27
LIBURU ZURIAREN PROZESUA	28
BOST AGERTOKIAK: POLITIKEN IKUSPEGI PANORAMIKOA	29

## 1. Sarrera

Belaunaldiz belaunaldi, etorkizuna izan da beti Europa.

Altiero Spinelli eta Ernesto Rossi preso politikoek egin zuten aurreneko urratsa bide hartan, Bigarren Mundu Gerran erregimen faxistak Ventotene uhartean deportatuta zituenean. «Europa aske eta batuaren alde» izeneko manifestu hartan, aliatu zein arerioek bat egiteko moduko leku bat deskribatu zuten, Europako «absurdo zaharrak» sekula ez errepikatzeke leku bat. Duela 60 urte,

### Ventoteneko Manifestua



ametsa zen, denontzako etorkizun baketsuaren ametsa besterik ez, baina Europar Batasuneko fundatzaileek huraxe ere nahikoa izan zuten Europako integrazioaraino iristeko bidaia aparta eta asmo handikoa martxan jartzeko. Eta erabaki zuten mahai baten inguruan konponduko zituztela liskarrak, ez gudu-zelaian. Indar armatuaren ordeztu, legearen indarra erabiliz. Bidea urratu zuten, beste herrialde batzuk ere bildu zitezten, Europa batzeko eta guztiok sendoago izateko.

Horri esker, atzean laga dugu gure iragan zurrunbilotsua, dagoeneko badira zazpi hamarkada bakealdian bizi garela, eta 500 milioi herritarrez osatutako Europar Batasun zabala daukagu orain. Aske bizi gara denok, munduko ekonomiarik oparoenetako batean. Atzean laga ditugu, baita ere, Lubakietako guduen irudiak, Verdungo zelaietako irudiak, Burdinazko Hesiaz eta Berlinen etorkizunaz sakabanatutako kontinentearen irudiak, eta bakearen eta egonkortasunaren eredu den Europar Batasuna daukagu orain.

Aurreko gizaldien sakrifizioa ez dugu inoiz ahaztu behar. Nekez lortu ditugu duintasuna, askatasuna eta demokrazia, eta ez diegu uko egin behar, inola ere. Egia bada ere gaur egungo europarrek bakearekiko dugun lotura ez dela gure aitona-amonena edo

gurasoena bezalakoa, oinarrizko balio batzuek elkarrekin lotzen gaituzte oraindik.

Gaur egun, denetariko kultura, ideia eta tradizioak biltzen dituen lekua da Europar Batasuna; aniztasun oparoa disfrutatzeko aukera daukagu lau milioi kilometro karratutan. Beste europar batzuekin bizi guztirako loturak sortu ditugu leku honetan, eta badaukagu modurik moneta aldatu gabe bakoitzaren mugatetik harago bidaiatu, ikasi eta lan egiteko. Zuzenbide Estatuak indartsuenaren nagusitasunari lekua kendu diolako. Berdintasunaz hitz egin ez ezik, landu egiten dugu berdintasuna.


Eta, halere, europar askori iruditzen zaie Europar Batasuna arrotzegia dela edo, alderantziz, gehiegi sartzen dela bakoitzaren eguneroko bizimoduan. Beste batzuek zalantzan jartzen dute Batasunaren balio erantsia, eta ez dakite zertan hobetzen duen beren bizia.

Jende gehiegiren iritziz, EBk ez zuen espero bezala erantzun gerraosteko historian Europak jasan duen krisi finantzario, ekonomiko eta sozialik larriena gertatu zen garaian.

Eta ez dirudi aurrerantzean erronka gutxiago izango dituenik Europak. Mundu mailako finantza-krisiaz geroztik, oraintxe ari da burua altxatzen gure ekonomia, baina pizkunde horren efektuak ez dituzte berdin sumatzen denek. Inguruko herrialde batzuetako ezegonkortasunak Bigarren Mundu Gerra osteko errefuxiatuen krisi larriena eragin du.

Atentatu terroristek gure hirietako hezurak eta mamia jipoitu dituzte. Mundu mailako potentzia berriak ari dira sortzen; aldiz, garai batekoak errealitate berriei aurre egin beharrean dira. Eta pasa den urtean, gure estatu kideetako batek Batasunetik ateratzearen alde botatu zuen.

Gaur egungo egoerak ez dauka zertan Europaren etorkizunerako oztopoa izan.



Iturria: Europako Batzordea

Krisietatik eta porrotetatik eraiki da Batasuna lehen ere. Esate baterako, Defentsako Europako Batzordearen porrotetik (pasa den mendeko berrogeita hamarreko hamarkadan abiatu ezinik geratu zena), edo hirurogeita hamarreko hamarkadako truke-tipoaren gorabeheretatik eta huts egindako bateratzeak nahiz azkeneko hamarkadetako erreferendum bidezko ukapenetatik. Europa beti egon da bidegurutzean, eta beti asmatu du egokitzen eta aurrera egiten.

Azkeneko hogeita bost urteetan ere, Maastricht, Amsterdam eta Nizako Tratatuak sakon-sakonetik aldatu dute Batasuna, eta gaur egun hasieran baino bi aldiz handiagoa da. Lisboako Tratatuak, eta horra iristeko behar izan zen hamar urtetako eztabaidak, Europako integrazioaren beste kapitulu bat ireki dute, oraindik ere esplotatzeko potentziala daukana.

Gure aurrekoek bezalaxe, guk ere lana daukagu egiteko, baina ezin gara nostalgiaz atzera begira egon,


ezta epe laburrera begira ere. Ikuspegi bera izan behar dugu eta sinetsita egon batasuna denon mesederako dela.

Gure proiektu komunaren urteurrena ospatzeko Europar Batasuneko hogeita zazpi estatuburu edo gobernuburu elkartuko gara Erroman, eta duela 60 urteko lorpena gogora ekarriko badugu ere, aurrera begira jarri behar gara berriro.

Hurrengo hamarkadan aldaketari bultzada emango dioten faktoreak zein diren aztertuko dugu Liburu Zuri honetan, eta hemendik 2025. urtera bitartean Europak izan ditzakeen garapenen agertoki batzuk aurkeztuko. Hala, aspaldiko galdera bati erantzun berriak ematen eta beharrezko hausnarketa zentratzen lagunduko digun eztabaida piztuko dugu.

Zer etorkizun nahi dugu guretzat, gure seme-alabentzat eta gure Batasunerako?

## Egungo Europa



Iturria: Europako Batzordea.


## 2. Europako etorkizunari bultzada emateko faktoreak

### ALDATZEN ARI DEN LEKUA, EBOLUZIONATZEN ARI DEN MUNDUAN

Europa da munduko merkatu bakar handiena, eta gehien erabiltzen den bigarren moneta dauka. Potentzia komertzial handiena da eta garapenerako zein hurkoarentzako laguntza gehien ematen duena. Hein batean, Horizonte 2020 programari esker (ikerketarako multinazionalerako programa garrantzitsua mundu osoan), Europa berrikuntzaren abangoardian dago. Bere diplomaziak pisu handia dauka eta asko laguntzen du munduko segurtasuna eta jasangarritasuna handitzen. Horren erakusgarri, beren programa nuklearrari buruz Iranekin lortutako akordio historikoa, nahitaez aipatu beharrekoa; edo aldaketa klimatikoari buruzko Pariseko Akordioan eta Nazio Batuek 2030 urterako garapen jasangarrirako helburuak onartzeko EBk izan zuen lidergoa. Batasunaren eragina areagotu egin da, gainera, NATOrekin dugun harreman estuari esker eta Europako Kontseiluan daukagun jokaera aktiboari esker.

Europa oso erakargarria da bere kide askorentzat. Nahiz epe laburrean ez dagoen aurreikusita EBk kide berriak hartzerik, perspektiba hori bada nahikoa instrumentu ahaltsua egonkortasuna eta ziurtasuna hedatzeko gure mugetan, luze-zabal. Europar Batasuna buru-belarri ibiltzen da elkarlanean auzoko estatuekin, nola ekialdekoekin hala hegoaldekoekin. Ukrainiarekin dugun asoziazioa, sendotu egin duguna apurka, gure kide afrikarrekin daukagun kooperazio zabalak... horregatik eta beste askogatik, gaur egun Europak munduan daukan indar positiboa inoiz baino garrantzitsuagoa da orain.

#### Munduko biztanleriaren zati gero eta txikiagoa da Europa



Iturria: Nazio Batuen Estatistiken Dibisioa eta Eurostat.

Alabaina, estatus horrek errealitate argi eta garbia dauka atzean: Europak munduan daukan posizioa ahultzen ari da, munduko beste parte batzuk handitu

ahala. 1900. urtean, Europa munduko biztanleriaren % 25 inguru zen. 2060. urtean, ordea, % 5etik behera izango da. Eta garai horretan, estatu kideetako bat ere ez da izango munduko biztanleriaren % 1etik gorakoa.


Europaren botere ekonomikoa ere gutxitu egingo omen da neurri erlatiboetan; badirudi 2030. urtean, mundu mailako barne produktu gordinaren (BPGd) % 20 baino askoz txikiagoa izango dela, gaur egungo % 22koaren aldean. Indarra hartzen ari diren ekonomiek daukaten eragina gero eta azkarrago handitzen ari denez, gero eta garrantzitsuagoa da Europa ahots bakarrez mintzatzea, eta kide bakoitzaren pisu indibiduala batuta jokatzeko.

#### Europak munduko BPGd-an daukan zatia gero eta txikiagoa da

	2004	2015	
Ameriketako Estatu Batuak	% 28	% 24	↘
EB27	% 26	% 22	↘
Japonia	% 11	% 6	↘
Erresuma Batua	% 5	% 4	↘
Txina	% 5	% 15	↗
Kanada	% 2	% 2	→
Mexiko	% 2	% 2	→
Brasil	< % 2	% 2	↗
India	< % 2	% 3	↗
Muduaren gainerakoak	% 18	% 21	↗

Iturria: Eurostat eta Nazio Batuen Estatistiken Dibisioa.

#### Mundu mailako moneta bihurtu da euroa, baina beste eragile batzuk gero eta indar handiagoa hartzen ari dira



Oharra: Nazioarteko Diru Funtsak erabiltzen duen erreferentziazko moneten otarrean izan den aldaketa erakusten du grafikoak, hau da "igorpen-eskubide bereziak".

Iturria: Nazioarteko Diru Funtsa (zifrak 2015eko azaroaren 30ekoak eta 2017ko otsailaren 24koak dira, hurrenez hurren).


Ekialdeko gure mugetan tropak pilatzen ari dira, Afrikan eta Ekialde Ertainean gerrak eta terrorismoa daude nonahi, eta mundua gero eta militarizatuagoa dago...alegia, mundua kinka larrian dago, gero eta gehiago. Gure inguruan ditugun mehatxuak (direla eskala handiko ziber-erasoak, direla bortxakeria forma tradizionalak) uxatzeko zer egin behar dugun ebazteko premia latza dugu, inoiz ez bezalakoa, baita erantzuna eta babesa emateko premia ere. NATOk segurtasun militarra



emango die EBko herrialde gehienei aurrerantzean ere, baina Europak ezin du txolina izan, adi egon behar du eta bere burua babestu. «Botere biguna» izatea ez da nahikoa orain, ikusita indarra legeari gailendu dakiola.


Nahiz eta mundua ez den inoiz orain baino txikiagoa izan eta ez den inoiz orain baino hobeto konektatuta egon, isolatzeko joera itzuli izanak zalantza piztu du nazioarteko komertzioaren eta multilateralismoaren inguruan. Europaren oparotasuna eta bere baloreak mundu mailan defendatzeko gaitasuna baldintzatuta egongo da aurrerantzean ere, zabaltzearen eta kideekiko loturen sendotasunaren arabera. Hala eta guztiz ere, gero eta nekezagoa izango dugu merkataritza librearen eta progresiboaren alde egitea eta globalizazioa denon mesederako izateko moduan konfiguratzeko.

**Badirudi, hemendik eta 2045. urtera arte, defentsako gastua bikoiztu egingo dela sektore horretan gehien inbertitzen duten herrialde gehienetan** (milaka milioitan, USD)



Iturria: Erresuma Batuko Defentsa Ministerioa: Strategic Trends Programme: Global Strategic Trends — Out to 2045

**EB da garapenerako laguntza eta hurkoarentzako laguntza gehien ematen duena** (bai ehuneko totalen, bai USDko mila milioika)



Iturria: ELGE, 2015, EB= EB eta estatu kideak.


**EKONOMIA ETA GIZARTEA ERROTIK ERALDATUAK**

2008an Estatu Batuetan hasi eta mundu guztira zabaldu zen krisi ekonomiko eta finantzarioak goitik behera astindu zituen Europako oinarriak. Krisiari erantzun zorrotza eman zitzaionez, berriz ere egonkorragoa da EBko ekonomia, eta langabezia mailarik baxuenean dago orain, “atzerakada handia” delakoaren ostean. Nolanahi, errekupeazioa oraindik ez da berdina denentzat ezta eskualde denetan ere.

Premiazko lehenetsuna da, horrexegatik, krisiaren ondorioei aurre egiten jarraitzea, langabezia aldi luzeak ez ezik, zor publiko zein pribatuaren maila altuak konpontzeke daude-eta oraindik, Europako leku askotan.

Gazteak daude okerreren. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, lehendabizikoz, benetako arriskua daukagu egungo gazteek beren gurasoek baino bizi-baldintza okerragoak izateko azkenean. Baina Europak ezin du amaitu inoiz izan duen belaunaldirik prestatuena galtzerik, eta belaunaldiz belaunaldiko beherakada honek gazteen etorkizuna kondentatzerik.

**Langabezia maila behera doa, baina oraindik ere altua da Hogeita Zortzien Europan**



Iturria: Europako Batzardea.


Bilakaera honek zalantza piztu du EBko merkatu ekonomia sozialaren inguruan, eta askok kolokan ikusten ditu inor atzean ez uzteko eta belaunaldi bakoitzak aurrekoak baino bizi-baldintza hobekak izateko promesa. Euroaren eremuan bereziki bizia izan da ezinegon hori, baina orotara erakutsi du batasun ekonomikoa eta monetarioa erabat burutzea premiazkoa dela, eta emaitza ekonomiko nahiz sozialak denentzat berdintzea. Horra hurrengo urteetarako erronka: Europak ekonomia inklusiboagoa, lehiakorragoa, moldaerazagoa eta prestatuagoa izatea.

Ziztuan ari da zahartzen Europa, inoiz ez bezalako bizi-itzaropena daukagu orain. Munduko eskualderik

“zaharrena” izango da Europa 2030ean, batez besteko adina 45 urtekoa izango da. Gizartearen kohesioa josteko modua ere aldatzen ari da, familia-egitura berriengatik, aldaketa demografikoengatik, urbanizazioengatik, eta lan egiteko era desberdin asko sortzen ari direlako. Belaunaldi batean, Europako batez besteko langileek hamar lan baino gehiago izango dituzte beren lan-ibilbidean, ez bat bakarria bizi guztian, lehen bezala.

Inoiz baino emakume gehiago dabil lanean, baina oraindik hesi asko eraitsi beharra dago, benetako genero-berdintasunik izango bada. Lan egiteko adina dutenak gero eta gutxiago direnez orain Europan, oraintxe baliatu behar dugu haien talentua.

**Europak munduko biztanleriarik zaharrena izango du 2030ean** (munduko eskualdeetako batez besteko adina)



Iturria: Rand Europe.


Gizarte-segurantzako sistema aurreratuenak ditugu Europan, mundu guztian zailtasun sozialei aurre egiteko modukoak. Europako komunitate zientifikoa osasun-arloko ikerketetan aurreko muturrean dabil, adibidez, Alzheimer gaixotasunerako tratamenduan. Halere, babes sozialeko sistemak errotik modernizatu beharrean gaude, luzera jotzeko modukoak izango

badira, errealitate demografiko eta laboral berrietara egokituta.

Inoiz baino garrantzitsuagoa da hori, Europan une honetan gizartea goitik behera digitalizatzen ari baita, eta, horren ondorioz, gero eta lausoagoa baita norberaren kontura edo besteren kontura aritzen diren langileen arteko diferentzia, bai eta ondasun eta zerbitzuen artekoa edo kontsumitzaile eta ekoizleen artekoa ere. Duela hamar urte existitu ere ez ziren egiten gaur egungo ogibide asko, eta hurrengo urteetan beste asko sortuko dira. Litekeena da orain lehen hezkuntzan hastekoak diren umeetatik asko, gaur egun existitzen ez diren ogibideetan jardutea handitzean. Enplegu eta sektore guzti-guztiei eragingo die teknologia eta automatizazioa areagotzeko joera honek. Aukera berriak erabat aprobetxatzeko eta,aldi berean, efektu txar oro arintzeko, egundoko inbertsioa egin beharko da jendea trebatzen, eta hezkuntza-sistema nahiz etengabeko ikaskuntzaren sistema sakon-sakon eraldatzen. Gainera, ezinbestekoa izango dugu eskubide sozial berriak taxutzea ere, lan-munduaren garapenarekin bat egiteko gai izango bagara.

Bien bitartean, ekonomiatik ikatza kentzeko eta isuri kaltegarriak gutxitzeko ahaleginean ari da buru-belarri Europa. Ingurumenak eta klimak gero eta estuago hartuko gaituzte, eta egokitu egin beharko dugu ezinbestean. Gure funtzionatzeko era eta gure energia aldatu beharko ditugu industrian, hirietan, bai eta gure etxeetan ere. “Hiri adimentsuak” direlakoan baliabide naturalak zorrotz erabiltzen eta aldaketa klimatikoaren kontra borrokan aurreko muturrean gabiltza dagoeneko. Energia berrien teknologien patenteen % 40 Europako enpresenak dira. Orain soluzio berritzaile horiek guztiak merkaturatzea izango dugu lana, Europar Batasunean bertan nahiz kanpoan.

**Europan daude munduko gizarte berdinzaleenak**



Berdinzaleenak ■ Gutxien berdinzaleak ■ EBko estatuak ■ ELGEko herrialdeak ■

Oharra: errenta gizabanakoen artean nola banatzen den erakusten du grafiko honek, Giniren koefizientea erabilita, 0 zenbakiak erabateko homogeneotasuna adierazten duela.

Iturria: ELGE, eskura dauden azkeneko datuak

## GERO ETA MEHATXU GEHIAGO, ETA SEGURTA-SUNAREN ETA MUGEN ARLOKO KEZKA HANDIAGOA

Liskarrak eta banaketa nagusi diren mundu honetan, Europak askatasuna eta egonkortasuna ematen die biztanleei.

Munduko baketsuen jota dauden 25 herrialdeetatik, 15 Europar Batasunekoak dira. Halere, ezin ukatu azkenaldiko eraso terroristek dardarka jarri gaituztela.

Kanpoko eta barruko mehatxuen arteko aldea gero eta lausoagoa denez, jendeak segurtasunaren eta mugen inguruan zeukan iritzia aldatzen ari dira asko eta asko. Paradoxa badirudi ere, oraintxe da errazena eta usuen jendea munduan hara eta hona ibiltzea, lanagatik edo gustuz.

Bestalde, migrazioa eragiten duten presioak ere agaritu egingo dira eta munduko hainbat aldeetatik


fluxuak sortuko dira; biztanleriaren hazkundera, aldaketa klimatikoa eta edonongo tentsioak errotzen ari direlako. Errefuxiatuen krisiak 1,2 milioi etorkin ekarri zituen Europara 2015. urtean: ez da halako krisirik izan Bigarren Mundu Gerraz geroztik, eta itzelezko eztabaida piztu du horrek estatu kideen artean, elkartasunaz eta erantzukizunaz. Gainera, Europako mugen kudeaketaren eta zirkulazio librearen etorkizunaren inguruan zalantza asko sortu zaizkio jendeari.

Egunero beste estatu kide batera desplazatzen diren 1,7 milioi europarrentzat eta urtero, familiako kontuak, turismoa edo lana direla-eta, Europan zehar bidaian dabilzan ehunkada milioientzat, mugak garai bateko kontua dira. Eta, halere, duela belaunaldi bat harresiak apurtu eta gero, Europako muga jakin batzuetan aldi baterako kontrolak jarri dituzte duela gutxi, azkeneko krisien ondorioz

### Duela 27 urte: Berlingo harresia eraitsi zenmodukoak



## Munduko hogeita bost herrialde baketsuenak



Iturria: Mundu-mailako Bake Indizea.

## KONFIANTZA ETA ZILEGITASUNA ZALANTZAN

Munduan gertatu diren aldaketengatik eta askok sumatu duten segurtasun-faltagatik, politikatik eta erakunde konbentzionaletatik gero eta urrunago dago jendea, maila guztietan. Urruntasun hori botere publikoen jardunarekiko axolagabekeria eta konfiantza faltan mamitzen da maiz, eta erretorika nazionalistaz eta populistaz errazegi betetzen den hutsunea sortzen du.

Arazo guztien errua “Bruselari” eman eta merituak, berriz, bakoitzaren herrialdeari aitortu sarritan egiten dugu, baita elkarrekin hartutako erabakiak gure gain hartu ez eta besteei behatzarekin seinalatu ere, nahiz eta horrek lehendik ere argi erakutsi duen kalterako besterik ez dela. Baina europarrok batasun falta horretan gabiltza behin baino gehiagotan.

Proiektu europarrak aldeko asko du oraindik, baina ez itsu-itsuan lehen bezala. Europarren bi herenek uste du EB leku egonkorra dela, mundu asaldatu honetan. Hala, % 80 baino gehiago daude EBren lau oinarritzko askatasunen alde. Euro eremuko biztanleen % 70 moneta komunaren alde daude.

Hala eta guztiz ere, behera egin du herritarrek Europar Batasunean zuten konfiantzak, eta agintari

nazionalengan zuten konfiantzak ere. Herritarren herena, hor nonbait, fidatzen da EBz gaur egun, baina duela 10 urte, erdia bazen fio.

Emandako hitzaren eta hitza betetzearen arteko erretena ixtea etengabeko lana dugu. EBren arkitektura ez baita erraz ulertzen, alde batetik Europa bera eta bestetik, estatu kideak direlako tartean. Ez dugu behar bezala azaltzen nork egiten duen zer, eta EBk egunerokoan ekartzen duen onura ez da begi-bistakoa, herrialde bakoitzari historia kontatu ezean. Herritarrak askotan ez dira jabetzen aldameneko baserria edo abeletxea, garraio-sarea edo unibertsitateak EB diruz lagunduta daudela.

Are gehiago, jendearen uste eta nahiak eta EBk horiek betetzeko duen benetako ahalmena ez datoz bat. Esate baterako, gazteen langabezia: nahiz eta goi-mailako bilera ugari egin eta EBk laguntza-neurri onuragarriak jarri, arlo bakoitzeko instrumentu eta eskumenak nazioko, eskualdeko edo tokietako agintarien esku daude. Europa mailan politika sozialetarako ditugun baliabideak estatu kideek arlo horretan gastatzen dutenaren % 0,3 besterik ez dira.

Orain zailagoa da berriz konfiantza hartzea, adostasuna bultzatzea eta elkarrekikotasun sentipena sortzea, garai honetan informazio erruz daukagulako,




dena eskura, baina ulertu ezinik gabiltzalako. Berrien fluxu etengabea puri-purian da beti, ia ezin diogu jarraitu ere egin, eta are gutxiago, erantzun. Gaur egun txio gehiago bidaltzen dira egun bakarrean, duela hamarkada bat urte osoan baino. 2018an, munduko herritarren herenak inguru erabiliko ditu sare sozialak.

eztabaida publikoa pizteko eta Europako herritarrak tartean sartzeko aukera gehiago ekarriko dituen bezala. Nolanahi, Europak eta estatu kideek azkarrago ekin behar dute herritarrekin jarduten, ardura handiagoa hartzen eta denen artean erabakitakoa hobeto eta azkarrago betetzen.

Joera hori indartu egingo da aurrerantzean eta demokraziaren funtzionamendua bera ere aldatuko du,

### Zer irizten diote europarrek Europar Batasunari?



Iturria: 2016ko urriko eta azaroko Eurobarometroa, Hogeita zortzien Europa.





---

### 3. Europarako bost agertoki 2025

Gaur egun Europan gertatzen ari diren sakoneko eraldaketa asko ezin dira geldiarazi, eta ezin dira lehengoratu. Beste aldaketa batzuk aurreikusten zailagoak dira eta ustekabeen etorriko dira. Aldaketa horiekin batera joan daiteke Europa, edo forma ematen saiatu. Orain dugu garaia hori erabakitzeko.

Honako Liburu Zuri honetan aurkezten ditugun bost agertokiak lagungarri izango dira Europaren etorkizunari buruzko eztabaida orientatzeko. Beharbada, denok batera hartuko ditugun erabakien arabera, Europar Batasuna 2025. urtean izango den horren argazkiak dira.

#### **Agertoki bakoitzaren abiapuntua bera da, hogeita zazpi estatu kideek elkar hartuta egitea aurrera, batasune.**

Gutxi gorabeherakoak dira agertokiak, hausnarketa pizteko beste. Ez dira ez jarraibide politikoak ez eta ekintza-plan zehatzak ere. Halatsu, ez dute aipatzen prozesu legalik edo instituzionalik, funtzioaren arabera izango da-eta forma.

Sarriegi, Europaren etorkizunaren inguruko eztabaida bi muturreko aukeratar mugatu dugu, Europa gehiago edo gutxiago. Baina erabat engainagarria eta sinplista da ikuspegi hori. Dokumentu honetan azaldu ditugun aukerak askoz gehiago dira. Mutur batean, statu quo dagoen horretan laga eta irismena eta lehentasuna aldatzea eta, beste muturrean, aurrera jauzi egitea, partzialki edo kolektiboki. Eta tartekoak ere bai. Agertoki batzuk eta besteak berdinak dira puntu batzuetan eta, horrenbestez, ezin dira izan ez elkarrekiko baztertzaileak ez zehatzak ere.

Eta, dudarik gabe, errealitatea ezberdina izango da azkenean hemen aurkeztuko ditugun agertokien aldean. Hogeita zazpi estatuen Europak (EB-27) erabakiko du, estatu denen artean, bost agertoki horietako elementuen zer konbinazio izango den lagungarrien herritarren mesederako proiektua hobetzeko.

---

# 1. agertokia: Berdin jarraitu

## ERREFORMA POSITIBOEN PROGRAMA BETETZEN JARDUNGO DA BATIK BAT EUROPA BATASUNA

### **Zergatik eta nola?**

Bere horretan aurrera doan EB-27n, gaur egun indarrean duen erreforma-programa aplikatzen eta hobetzen zentratuko da Batasuna. Batzordeak 2014. urtean sortutako programaren espirituarekin (“Hasiera berria Europarentzat”) eta 2016an hogeita zazpi estatu kideek onartu zuten Bratislavako Adierazpenarekin bat eginik burutuko luke ahalegin hori. Lehentasunak tarteka-tarteka eguneratuko dira, sortu ahala erantzungo zaie arazoei eta horren arabera eraturiko dira legeak.

Hala, hogeita zazpi estatu kideek eta EBk ekintza-programa bateratua aplikatuko lukete. Erabakiak zenbateraino azkar hartuko diren, epe luzerako lehentasun kolektiboen inguruan dauden ikuspegi ezberdinak gainditu eta emaitzak lortzeko gaitasunaren arabera izango da. EBko legeria ere aztertuko da tartean behin, egokia ote den ikusteko, eta zahartuta geratu diren legeak erretiratu egingo dira.

### **Honako hauxe ekarriko luke horrek 2025ean:**

Enplegua, hazkundea eta inbertsioa lantzen zentratuko da oraindik EB-27, merkatu bakarra indartuz eta garraio, energia nahiz azpiegitura digitaletarako inbertsioak handituz.

Moneta bakarraren funtzionamendua hobetzeko aurrerapausoak egingo lirateke, gure monetaren hazkundera indarra emateko eta kanpoko zein barruko asaldurak saihesteko. Finantzen kontrola indartzeko, finantza publikoen iraupena ziurtatzeko eta kapitalen merkatuak garatzeko beste neurri batzuk hartuko dira, ekonomia erreala finantzatzeko asmoz.

Batzordeak estatueterako laguntzen arloko legeak aldatuko ditu, eta, hala, ziurtatuta egongo da laguntza

horien % 90 nazio, eskualde edo lekuko agintariak kontrolatuko dituztela.

Terrorismoaren kontrako borroka gogortuko da, agintari nazionalak zenbat eta informazio gehiago banatu, orduan eta gehiago. Defentsarako elkarlaguntza sakonagoa izango da, ikerketan, industrian zein kontratazioan denak batera jardunda. Estatu kideek gaitasun militar batzuk elkarrekin banatuko dituzte eta EBk atzerrian dituen misioen inguruko finantzekiko solidaritatea hobetu.

Kanpo politiketan, ahots bakarraz hitz egiteko aurrerapausoak egingo dira. Mundu osoko bazkideekin merkataritza-akordioak lortzea izango litzateke EB-27ren ahaleginetako bat, gaur egun bezalaxe. Kanpoko mugak kudeatzeko ardura herrialde bakoitzak izango du, baina lankidetzari indarra emanda, Mugen eta Kosten Europako Guardiaren laguntza operatiboari esker. Mugak ondo kudeatzeko etengabe hobetzen jardun behar dugu beti, erronka berriak etengabe sortzen dira-eta. Bestela, gerta liteke herrialde batzuek barne-kontrol selektiboak nahi izatea.

EB-27k munduko agendan eragin positiboa izango du, alor batzuetan, esate baterako, klima-aldaketa, egonkortasun finantzarioa eta garapen jasangarria.

### **Alde onak eta txarrak:**

Ekintza-programa positiboak emaitza zehatzak emango ditu orain ere, etorkizun komuna oinarri hartuta. EBren marko juridikoak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak errespetatuko dira. EB-27k batuta jarraituko du, baina liskar handiak izanez gero, batasuna kolokan legoke. Garrantzizko arloetan emaitza onak jasotzeko ahalegina egiteko prest egon behar dugu denok, ezinbestekoa izango da paperezko promesen eta herritarren uste eta nahien arteko aldea gutxituko badugu.





## Politiketan izango dituen ondorioak

<b>Merkatu bakarra eta merkataritza</b>	<b>Batasun ekonomikoa eta diru-batasuna</b>	<b>Schengen, migrazioa eta segurtasuna</b>	<b>Kanpo-politika eta defentsa</b>	<b>EBko aurrekontua</b>	<b>Emaitzak lortzeko gaitasuna</b>
Merkatu bakarra indartuko da, batik bat energiaren sektorea eta sektore digitala; EB-27 merkataritza-arloko akordio progresiboak ixten ahaleginduko da	Euroaren eremuak gero eta hobeto funtzionatuko du	Kanpoko mugen kudeaketa eramateko kooperazioa indartu egingo da apurka-apurka; asilo emateko sistema komuna lortzeko aurrerapausoak egingo dira; segurtasun-kontuetan koordinazioa hobetuko da	Mugaz kanpoko kontuetan ahots bakarrez hitz egiten jarraituko da; defentsan elkarlana estuagoa izango da	Apur bat modernizatuko da, EB-27n adostutako programa mamitzeko	Ekintza-programa positiboak emaitza zehatzak izango ditu; erabakiak hartzeko prozesua ulertzen zaila izango da oraindik; emaitzak lortzeko gaitasuna ez da beti bat etorriko jendearen usteekin



## Irudi ilustratiboak

- Pizgarriak emango dira bai etxeetarako nahiz enpresetarako, energia gutxiago kontsumi dezaten eta, aldiz, beren energia sortu. Erraza dute hornitzailea aldatzeko. Batez beste, fakturak merkeago izango dira, baina zenbatekoaren erdia EBtik kanpoko hornitzaileei ordainduko zaizkie.
- Konektatutako ibilgailuak erabiltzeko moduan egongo dira europarrak, baina oraindik arazoak dituzte, teknikoak nahiz juridikoak, mugak zeharkatzeko.
- Europako hiri zein baserri inguruetan eskueran egongo kalitate eta abiadura handiko banda zabalak. Merkataritza elektronikoak gorakada izango du berriz, baina beste estatu kideren batetik produktuak bidaltzea garestiegia izango oraindik.
- Europar gehienek izango dute mugak zeharkatzerik, kontroletan geratu gabe. Segurtasun-kontrolak sendotzearen ondorioz, askoz lehenago iritsi beharko dugu aireportuetara eta tren-geltokietara.
- Merkataritzako akordio selektiboak eta progresiboak eratuko ditu Europar Batasunak soka bereko kideekin, adibidez, Japonia, Australia, Zeelanda Berria, Amerika Latina eta abarrekin. Berresteko prozesua luzea da eta sarritan are luzeago egiten da eztabaidan jardutegatik eta nazioko edo eskualdeko parlamentuetan akordiorik ez dutelako lortzen.

---

## 2. agertokia: Merkatu bakarra besterik ez

### EUROPAR BATASUNA BERRIZ ERE MERKATU BAKARREAN ZENTRATUKO DA APURKA

#### **Zergatik eta nola?**

Bere horretan aurrera doan EB-27n, gaur egun EB-27 hainbat arlo ekonomikotan gehiago egiteko ados jarri ezinik dabilen garaian, merkatu bakarraren gako batzuk sakonago lantzen jardungo da gero eta gehiago. Denek ez daukate gogo berdina elkarrekin estuago lan egiteko migrazioa, segurtasun edo defentsaren arloetan.

Hori dela eta, EB-27k ez du aparteko ahaleginik egingo arlo politiko gehienetan. Denen intereseko kontu askotan, kooperazioa bi alderen artean kudeatuko da askotan. Horrez gain, arauen zama nabarmen arinduko du EB-27k, indarrean dauden bi lege-egintza erretiratuta proposatzen den ekimen berri bakoitzeko.

#### **Honako hauxe ekarriko luke horrek 2025ean:**

Merkatu bakarrak ondo funtzionatzea izango da EB-27ren funtsa. Aurrera egiteko ahalmena politikak eta horiei lotutako arauak adosteko gaitasunaren men geratuko da, eta aurrera egitea errazagoa izango da kapitalen eta merkantzien zirkulazio librearen eremuan –aduna-zergarik gabe egongo bailitzateke– beste arlo askotan baino.

EBko araudia murrizten ahalegin handia egingo denez, ezberdintasun asko legoke oraindik, edo gehiago ere bai, hainbat arlotan: kontsumoko arauak, arau sozialak eta ingurumenekoak, zerga-sistema, diru-laguntza publikoak.... Horrek “beheranzko lasterketa” egiteko arriskua lekarke.

Nekeza izango da arau komun berriak adostea, langileen mugikortasun kontuetan nahiz lanbide arautuetan sartzeko kontuetan. Horren ondorioz,

ezingo da erabat ziurtatu langile eta zerbitzuak libre zirkulatzeko modurik egongo litekeenik. Euroak truke komertzialak erraztuko ditu, baina dibergentzia gero eta handiagoa da eta kooperazio berriz, eskasagoa, eta horrek babes falta handia ekarriko luke. Moneta bakarraren integritatea kolokan jarriko luke horrek, bai eta beste krisi finantzario bati erantzuteko gaitasuna bera ere.

Muga nazionaletan pertsonen kontrol sistematikoagoak egingo zaizkie, ez dagoelako behar beste kooperaziorik segurtasun eta migrazio-kontuetan.

Nazioarteko merkataritza lantzeko akordio ezak direla-eta, EBk zailtasunak izango ditu kideekin akordioak eratzeko. Migrazioa eta kanpo politikako alde batzuk alde biko kooperazioaren bitartez lantzen dira gero eta gehiago, eta hurkoarentzako eta garapenerako laguntza nazio mailan landuko lirateke.

Orotara, Europar Batasuna ez legoke ordezkatuta nazioarteko foro batzuetan, munduko bazkideen begitara nabarmentzekoak diren kontuetan ados jartzen ez luketelako asmatuko, adibidez, aldaketa klimatikoa, iruzur fiskala, globalizazioaren aprobeixamendua eta nazioarteko merkataritzari eman beharreko bultzada.

#### **Alde onak eta txarrak:**

EBko lehentasunei bestelako orientazioa eman eta gero agertuko diren arazo berrien inguruan estatu kideek duten ikuspegien arteko diferentziak, maiz, alde biko erabakiak hartuta ebatzi beharko dira, kasuz kasu. Gerta liteke, denboraren joanean, EBren marko juridikoak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak murriztuta geratzea. Beharbada, erabakiak hartzeko prozesua errazago ulertuko da, baina kolektiboki jokatzeko gaitasuna murriztuta geratuko da. Horregatik, oraindik ere tarte handiagoa egin daiteke usteen eta lortutako emaitzen artean, maila guztietan.



## Politiketan izango dituen ondorioak

<b>Merkatu bakarra eta merkataritza</b>	<b>Batasun ekonomikoa eta diru-batasuna</b>	<b>Schengen, migrazioa eta segurtasuna</b>	<b>Kanpo-politika eta defentsa</b>	<b>EBko aurrekontua</b>	<b>Emaitzak lortzeko gaitasuna</b>
Ondasunen eta kapitalen merkatu bakarra indartu egingo da; arauak ezberdinak izango dira oraindik; pertsonen eta zerbitzuen zirkulazio librea ez da erabat ziurtatuta egongo	Euroaren eremuan kooperazioa murrizta izango da	Ez da egongo politika bakarra ez migrazio kontuetan ez asilo kontuetan; segurtasuneko koordinazioa sakondu beharra bilateralki landuko da; barruko mugetako kontrolak sistematikoagoak izango dira	Kanpo politikako kontu batzuk gero eta gehiago landuko dira bilateralki; defentsako kooperazioa orain arte bezalakoa izango da	Bestelako orientazioa emango zaio, merkatu bakarrerako funtsezko diren eginkizunak finantzatzeko moduan egoteko	Erabakiak hartzeko prozesua errazago ulertuko da seguraski, baina kolektiboki jarduteko gaitasuna murrizta izango da; denen intereseko kontuak maiz bilateralki ebatzi behar dira



## Irudi ilustratiboak

- Airearen kalitatea oso diferentea izango da Europako herrialde batzuetan eta besteetan, eta herrialde batzuek pentsatu dute isuri kaltegarrien inguruko arauak eta legeak ezabatzea. Uraren kalitatea ere oso desberdina izango da herrialdez herrialde, esate baterako, Danubion edo Rhinen.
- Europarrak ez dira automobil konektatuak erabiltzearen oso aldeko izango, ez dagoelako legeria zehatzik ez arau teknikorik EBren mailan.
- Barruko mugak zeharkatzea zaila izango da, negoziotarako edo turismorako, berdin-berdin, kontrolak sarri egiten direlako aldiro-aldiro. Atzerrian lana aurkitzea ere konplikatuagoa izango da eta ezingo da ziurtatu pentsio-eskubideak beste estatu kide batera transferitzerik izango denik. Atzerrian gaixorik jartzen direnek itzelezko faktura medikoak ordaindu beharko dituzte.
- EB-27k ez du lortuko merkataritza-akordio berririk lotzerik, estatu kideak ez direlako gai ados jartzeko denentzako lehentasunen inguruan, edo batzuek berrespena blokeatzen dutelako.
- Aireko espazioa urratzen dieten herrialdeetako herritarrek edo atzerriko potentzia handi baten eskala handiko ziber-erasoak jasaten dituztenek ezin dute ulertu zer dela-eta EB-27k edo alboko herrialdeek ez duten akordioen bat taxutzen zigorrak jartzeko.
- Garapenerako laguntza berriz nazionalizatuta, orain zailagoa litzateke Afrikako herrialdeekin asoziazio globalak mamitzea, eta horren ondorioz, aukera ekonomikoak urriago izango liriteke hedapenezko merkatu honetan, eta migrazioaren oinarri-oinarriko kausak lantzea ere zailago.

---

## 3. agertokia: Gehiago egin nahi dutenek, gehiago egin

EUROPAR BATASUNAK AUKERA EMANGO DIE ESTATU KIDEEI, NAHI IZANEZ GERO, KOLABORAZIO HANDIAGOA IZATEKO ALOR ESPEZIFIKOETAN

### **Zergatik eta nola?**

EB-27k gaur bezalaxe funtzionatzen duen agertoki batean, estatu kide batzuek gauza gehiago egin nahi lukete elkarrekin, eta “borondateen koalizio” bat edo batzuk sortuko lituzkete hainbat alor politikotan elkar hartuta jarduteko, adibidez, defentsan, barne-segurtasunean, zerga-sisteman eta kontu sozialetan.

Horren ondorioz, estatu kideen talde berri batzuk ados jarriko lirake lege- nahiz aurrekontu-xedapen espezifikoen gainean, arlo horietan elkarren arteko kooperazioa areagotzeko. Schengen eremuaren kasuan edo euro eremuaren kasuan gertatu zen bezalaxe, EB-27ren marko komuna izan daiteke horretarako oinarria, baina eskubideak eta erantzukizunak askoz argiago utzi behar lirake. Gainerako estatu kideak bere horretan geratuko dira, baina aukera izango dute halako batean elkarrekiko kolaborazioa indartu duten kideekin bat egiteko.

### **Honako hauxe ekarriko luke horrek 2025ean:**

Estatu kideen talde batek erabakiko du defentsa-kontuetan askoz estuago lan egitea elkarrekin, eskuera dauden aukera legalak baliatuz. Horrek esan nahi du industria eta ikerketa oso ondo landuta eduki behar direla, bai kontratazio publiko bateratua ere, gaitasun are integratuagoak, eta atzerrian misio bateratuak burutzeko moduko gaitasun militar sendoa.

Segurtasun eta justizia arloan aurrera egingo dute herrialde batzuek. Indar polizialen eta inteligentzia-zerbitzuen arteko elkarlana indartzea erabakiko dute. Delinkuentzia organizatuaren kontrako borrokaren eta

terrorismoari lotutako ekintzen gaineko informazioa trukatu lukete horrela. Fiskaltza bateratua edukita, batera iker dezakete iruzurra, kapitalak zuritzea eta droga- nahiz arma-trafikoa. Aurrerago joan nahi dute, eta arlo zibileko justiziarako espazioa sortu.

Herrialde batzuek, euro eremuak batik bat, baina baita seguruena beste batzuk ere, erabakiko dute askoz estuago jokatzeko elkarrekin, batez ere, kontu fiskaletan eta sozialetan. Arauak eta tipo fiskalak zenbat eta harmonizatuago, orduan eta gutxiago arauok betetzeko gastuak, eta ihes fiskala ere murriztagoa. Adostutako arau sozialek segurtasuna emango dietenez enpresei, lan-baldintzak hobek izateko oso lagungarri izango dira.

Lankidetzaren industrialak indartuko da hainbat teknologia, produktu eta abangoardiako zerbitzu lantzeko; horiek erabiltzeko arauak denon artean prestatuko dituzte.

Hogeita zazpi estatuek aurrera egingo dute merkatu bakarra indartzen eta lau askatasunak sendotuko dituzte. Beste herrialdeekiko harremanak, baita harreman komertzialak ere, EB bertan kudeatuko dira oraindik ere, estatu kide guztien izenean.

### **Alde onak eta txarrak:**

EB-27ren batasuna ez da galduko, baina hala nahi duten herrialdeek badaukate elkarlana sendotzerik. EBren marko juridikotik eratorritako herriarrei ematen zaizkien eskubideak aldatzen hasiko dira, herrialdeak gehiago egitea erabaki duen ala ez gorabeheran. Gardentasuna eta kontuak argitu beharra planteatzen hasiko dira erabakiak hartzeko maila guztietan. Tartea estutu egingo da apurka, usteen eta benetako emaitzen artean, gehiago egin nahi eta hala egitea erabakitzen duten herrialdeetan.



## Politiketan izango dituen ondorioak

Merkatu bakarra eta merkataritza	Batasun ekonomikoa eta diru-batasuna	Schengen, migrazioa eta segurtasuna	Kanpo-politika eta defentsa	EBko aurrekontua	Emaitzak lortzeko gaitasuna
“Berdin jarraitu” bezala: merkatu bakarra indartu egingo da, batik bat energiaren sektorean eta sektore digitalean; EB-27 merkataritzako akordio progresiboan bila ibiliko da	“Berdin jarraitu” bezala: herrialde batzuk izan ezik, haiek kooperazio handiagoa izango baitute fiskalitate eta arau sozialetan, besteak beste	“Berdin jarraitu” bezala: herrialde batzuk izan ezik, haiek kooperazio handiagoa izango baitute segurtasunean eta justizian, besteak beste	“Berdin jarraitu” bezala: herrialde batzuk izan ezik, haiek kooperazio handiagoa izango baitute defentsa kontuetan, koordinazio militarra eta ekipamendu komunak landuz, batik bat	“Berdin jarraitu” bezala: estatu kide batzuek aurrekontuko baliabide gehiago jarriko dute, gehiago landu nahi dituzten eremu zehatzetarako	“Berdin jarraitu” bezala: EB-27aren ekintza positiboan agendak emaitzak ekarriko ditu; talde batzuek gehiago lortuko dute elkarrekin ekinez alor batzuetan; erabakiak hartzea gero eta konplexuago



## Irudi ilustratiboak

- Herrialde batzuek polizia-agenteen eta fiskalen talde bat eratuko dute, mugen bi aldeetara gertatzen diren delituak ikertzeko. Segurtasunaren arloko informazioa berehala trukatu da, datu-baseak erabat elkarri konektatuta daude-eta. Herrialde batean lortutako frogak penalak gainerako guztietan ere aintzat hartuko dira automatikoki.
- Automobil konektatuak ohikoak izango dira arlo horretako lege eta arauak harmonizatzea erabaki duten hamabi estatu kideetan. Estatu kideek arau multzo bat sortuko dute gauzen Interneti lotutako jabetza eta erantzukizunaren inguruko kontuak argitzeko.
- Herrialde batzuk elkarrekin jardungo dira eta “merkataritzako zuzenbidearen” inguruko kode komuna adostuko dute, merkataritza, sozietate-kontuak eta horri lotutako beste alderdi legal batzuk bateratzeko, eta neurri guztietako enpresei lagunduko diete mugen bi aldeetara errazago jarduteko.
- Hogeita bat estatu kideetako langileek izango dute aukera lan-eskubide eta babes sozial gehiago eskuratzeko, gero eta parekoagoak, edozein nazionalitate edo bizitoki dutela ere.
- Sei herrialdek helburu militarretarako drone bat hartuko dute, itsasoa nahiz lehorra kontu eginda edukitzeko, eta erreskateko laguntza-operazioetan erabiltzeko. Defentsa-programa komuna sortuko dute, ziber-atakeen kontrako azpiegitura kritikoak babesteko asmoz.



---

## 4. agertokia: Gutxiago egin, baina zorrotzago

HAINBAT ALORRETAKO LORPENAK AREAGOTZEN ETA AZELERATZEN ZENTRATUKO DA EUROPAR BATASUNA, ETA BESTEETAN GUTXIAGO JARDUNGO DU

### **Zergatik eta nola?**

Zenbait lehentasun elkarrekin hobeto lantzeko premia badagoela ados jarrita, EB-27k erabakiko du alor gutxi batzuei erreparatzea eta horietan jartzea eskura dauden baliabide urriak.

Horren ondorioz, EB-27 zentratuago egongo da eta azkarrago eta zorrotzago jokatzeko moduan egongo da, aukeratutako lehentasunezko alor horietan batik bat. Alor horietan, instrumentu ahaltsuagoak emango zaizkio denen artean hartutako erabakiak zuzenean aplikatzeko eta exekutatzeko, gaur egun lehiakortasunarekin edo bankuen gainbegiraketarekin gertatzen den bezalaxe. Gainerako alorretan, EB-27k ez du ezer egingo edo gutxi sartuko da tartean.

Lehentasun berriak aukeratzean, EB-27k ahal bezain bat berdindu nahi ditu promesak, usteak eta emaitzak. Gaur egun promesa eta emaitzen artean dagoen tartearen adibide tipikoa zera da, automobilen emisioen eskandalua: askok espero dute EB alde izango dutela fabrikatzaileen engainuen aurrean defenditzeko, baina EBk ez dauka horretan zuzenean eta nabarmen jarduteko ez eskumenik ez instrumenturik.

### **Honako hauxe ekarriko luke horrek 2025ean:**

EB-27 buru-belarri jardungo da berrikuntzan, merkataritzan, segurtasunean, migrazioan, mugak kudeatzen eta defentsan. Arau eta exekuzio-instrumentu berriak garatuko ditu merkatu bakarra hobeto lantzeko ardatzezko arlo jakin batzuetan. Ikerketa eta garapeneko bikaintasunean zentratuko da, eta ikatza gutxiago erabiltzeko eta digitalizazioaren aldeko proiektu berrietan inbertituko du, Batasunaren mailan.

Hona adibide tipiko batzuk: goi-teknologiako poloen arloko lankidetzak indartuko du eta energiarako eskualdeko plataformak sortuko ditu. EB-27k badu gaitasuna merkataritzako akordioak berehalakoan negoziatzeko eta gauzatzeko. Terrorismo kontuetan agintari polizial nahiz judizialak elkarrekin jardutea sistematikoa izango da, eta horretan oso lagungarri

izango da Terrorismoaren Kontrako Agentzia Europarra bata eta bakarra izateak.

Muga eta Kosten Guardiak bere gain hartuko du, erabat, kanpoko mugen gestioa. Asiloa jasotzeko eskaera guztiak Asiloa Laguntzeko Europako Bulego bakarrak izapidetuko ditu. Defentsarako ahalmen bateratuak taxutuko dira.


Alderantziz, EB-27 ez da jardungo edo gutxiago sartuko da balio erantsi txikiagoa antzeman zaien arloetan edo bere promesak bete ezin dituen arloetan, adibidez, eskualde mailako garapenean, osasun publikoan, edo merkatu bakarraren funtzionamenduari zuzenean lotuta ez dauden politika sozialen edo enplegurako politiken parte jakin horietan.

Estatu mailako laguntzak kontrolatzeko lana nazioetako agintarien eskuetan gehiago lagako da. Kontsumitzaileak, ingurumena eta laneko osasuna zein segurtasuna babesteko arau berriak harmonizazio xehetik gutxien gutxienera pasako dira. Estatu kideek askatasun handiagoa izango dute hainbat arlotan esperimendatzen jarduteko. Halere, EBk araututa dituen arloetan, exekutatzeko eskumenak indartuta, erabat beteko direla ziurtatzeko moduan izango dira.

Gainerakoetan, euro eremua errotzen segitzeko neurriak hartuko dira, moneta komuna egonkorra izango dela ziurtatzeko. EBk munduan daukan pisua aldagarria izango da, berregokituak zaizkion erantzukizunen arabera.

### **Alde onak eta txarrak:**

Azken batean, erantzukizunak argi banatuta edukitzeak asko lagunduko die Europako herritarrei eskualde mailan, nazioan nahiz EB-27n kudeatzen dena hobeto ulertzen. EBko marko juridikoaren arabera herritarrei dagozkien eskubideak areagotu egingo dira gehiago landu nahiko ditugun eremuetan, eta gutxitu, berriz, gainerakoetan. Horri eskerrak, txikitu egingo da promesen eta lortutako emaitzen arteko hutsunea, nahiz eta arlo jakin batzuetan usteak ez diren oraindik ere erabat beteko. Hasteko, EB-27ri izugarri zaila egingo zaio erabakitzea zer arlori eman behar zaion lehentasuna edo zeinetan sartu behar duen gutxiago.



## Politiketan izango dituen ondorioak

<b>Merkatu bakarra eta merkataritza</b>	<b>Batasun ekonomikoa eta diru-batasuna</b>	<b>Schengen, migrazioa eta segurtasuna</b>	<b>Kanpo-politika eta defentsa</b>	<b>EBko aurrekontua</b>	<b>Emaitzak lortzeko gaitasuna</b>
Gutxieneko arau komunak ezarriko dituzte, baina EBn araututa dauden arloetan exekuzioa indartu egingo da; merkataritza EBn bertan lantzen da erabat	Neurriak hartuko dituzte euroaren eremua finkatzeko eta horren egonkortasuna ziurtatzeko; EB-27 gutxiago jardungo da politika sozialean eta lan-arloko politiken alor batzuetan	Kooperazio sistematikoa egongo da mugak kudeatzen, asiloko politikak lantzen eta terrorismoaren kontrako borrokan	EBk iritzi bakarra izango du kanpo-politikako kontutan; Defentsarako Europar Batasuna sortuko dute	Diseinu berria emango zaio, goitik behera, EB-27n adostutako lehentasunetara moldatzeko	Lehenesteko edo baztertzeko lanei buruzko hasierako akordioa erronka izango da; erronka hori gainditzean, erabakia hartzeko prozesua errazago ulertuko da; EBk azkarrago eta zorrotzago jardungo du paper garrantzitsua betetzen duen arloetan.



## Irudi ilustratiboak

- Telekomunikazioetarako Europako Agentziak ahalmena izango du frekuentzia batzuk liberatzeko mugaz gaindiko komunikazio-zerbitzuetarako, adibidez, Europa guztian automobil konektatuak erabiltzeko beharrezkoak diren komunikazioetarako. Organismo arautzaile gisan jardungo du sare mugikorren eta Interneten erabiltzaileen eskubideak babesteko, EBko edozein lekutan.
- Terrorismoaren Kontrako Europako Agentzia berriak Europako hiri handietan atentatu larririk ez gertatzen eta prebenitzen lagunduko du, sistematikoki jokatuz susmagarrien arrastoari segitzen eta susmagarriak seinalatzen. Polizia-agintari nazionalak errazago izango dute gaizkileen gaineko informazio biometrikoa jasotzen duten datu-base europarrak kontsultatzea.
- Muga eta Kosten Guardiak bere gain hartuko du, erabat, kanpoko muga gestioa.
- Soldatak, legedia soziala eta zerga-maila oso ezberdinak izango dira Europan.
- Automobilen fabrikatzaileek engainatu dituzten kontsumitzaile europarrek ziur daukate EBk enpresa horiei zigorra jarriko diela eta konpentsazioen bat jasoko dutela.
- Nekazariak erraz eta denbora errealean izango dituzte eskura bai datu meteorologikoak bai uzten kudeaketari buruzko datuak ere, erabat operatibo izango den satelite-sistema europarrari esker.

---

## 5. agertokia: Askoz gehiago egin, elkar hartuta

### EUROPAR BATASUNAK ESTATU GUZTIEK ELKAR HARTU ETA GEHIAGO EGITEA ERABAKI DU, ARLO POLITIKO GUZTIETAN

#### **Zergatik eta nola?**

Agertoki honetan, denak ados daude: ez EB-27k, gaur dagoen bezala, ez Europako herriek beren aldetik, ezin diete gaur egungo erronkei erantzun, ez daukatelako bitarteko nahiko. Hortaz, estatu kideek erabakiko dute eskumen, baliabide eta erabaki gehiago banatzea, alor guztietan.

Horren ondorioz, estatu kideen arteko lankidetzaz inoiz baino harago joango da alor guztietan. Halatsu, euro eremua sendotu egingo da, denek argi baitaukatemoneta bakarra duten herrialdeetarako ona dena guztietara ona dela. Erabakiak berehala hartuko dira Europa mailan, eta gauzatu ere, azkarrago gauzatu dira.

#### **Honako hauxe ekarriko luke horrek 2025ean:**

Nazioartean, Europak erakunde bakar moduan hitz egiten eta jokatu du merkataritzako kontuetan eta ordezkari bakarra izango du nazioarteko foro gehienetan. Europako Parlamentuak izango du azkeneko hitza nazioarteko merkataritza-akordioetan.

Segurtasuna eta defentsa izango dira lehentasunak. NATOrekin erabat elkar hartuta, Defentsarako Europar Batasuna sortuko da. Segurtasun-kontuetan elkarlana ohikoa izango da. EB-27 oraindik ere liderra izango da aldaketa klimatikoaren kontrako borrokan mundu mailan, are gehiago, hurkoari laguntzen eta garapenerako laguntza ematen nagusi izango da.

EBren kanpo-politika zabalari esker, migrazio-kontuetan denak batera jarduteko indar handiagoa izango du. Europa inguruko nahiz urrunagoko herrialdeekin lankidetzaz estuagoa denez eta gehiago inbertitzen denez, aukera ekonomikoak sortuko dira, legezko migrazioa kudeatzeko modua izango da eta kanal irregularrak borrokatzeko ere bai.

EB-27n, energiaren, digitalizazioaren eta zerbitzuen merkatu bakarra osatzea lehenengotako helburua izango da. Denek batera inbertituko dutenez berrikuntza eta ikerketan, hainbat “Silicon Valley” sortuko dira Europan, arrisku-kapitaleko inbertsiogileen poloak, lekua hartzen ari diren enpresak, enpresa handiak eta ikerketa-zentroak. Kapitalen merkatuak erabat integraturik, errazagoa izango da ETEentzat eta EB guztirako azpiegitura-proiektu handietarako finantzaketa mugiarazten.

Euroaren eremuan, baina baita eremu horretan sartu nahi duten estatu kideetan ere, koordinazio askoz handiagoa izango dute arlo fiskalean, sozialean eta zerga-kontuetan, eta finantza-zerbitzuak Europatik gainbegiratuta egongo dira. EB laguntza finantzario gehiago emango du garapen ekonomikoari bultzatze eta krisi egoerei aurre egiten laguntzeko, nazioan, eskualdean edota sektorean.

#### **Alde onak eta txarrak:**

EBn erabakiak hartzea askoz errazagoa eta azkarragoa da. Herritarrek EBren marko juridikotik eratorritako eskubide gehiago dute. Hala eta guztiz ere, arriskua badago sektore batzuk pixkanaka urruntzeko, iritzita EBk ez duela zilegitasunik edo botere gehiegi xurgatu diela agintari nazionalai.





## Politiketan izango dituen ondorioak

<b>Merkatu bakarra eta merkataritza</b>	<b>Batasun ekonomikoa eta diru-batasuna</b>	<b>Schengen, migrazioa eta segurtasuna</b>	<b>Kanpo-politika eta defentsa</b>	<b>EBko aurrekontua</b>	<b>Emaitzak lortzeko gaitasuna</b>
Merkatu bakarrak indarra hartuko du, arauak harmonizatuz eta zorrotzago mamituz; harreman komertzialak EBk kudeatuko ditu erabat	Batasuna izango da ekonomian, finantzetan eta aurrekontuetan, 2015eko ekainean bost lehendakariak prestatutako txostenean aurrez ikusi bezala	“Gutxiago egin, baina zorrotzago” bezala: mugen, asiloaren eta terrorismoaren kontrako borrokaren kudeaketan kooperazioa sistematikoa da	“Gutxiago egin, baina zorrotzago” bezala: EBk iritzi bakarra izango du kanpo-politikako kontu guztietan; Defentsarako Europar Batasuna sortuko dute	Asko modernizatuko eta handituko da, bere baliabide propioetan oinarrituta; aurrekontua egonkortzeko funtzioa izango da euroaren eremuan	Erabakiak hartzeko prozesua azkarragoa da eta exekuzioa irmoagoa, oro har; EBk estatu kideetatik botere gehiegi xurgatu duelakoan dauden batzuek erantzukizun kontuak planteatzen dituzte



## Irudi ilustratiboak

- Telekomunikazioetarako Europako Agentziak ahalmena izango du frekuentzia batzuk liberatzeko mugaz gaindiko komunikazio-zerbitzuetarako, adibidez, Europa guztian automobil konektatuak erabiltzeko beharrezkoak diren komunikazioetarako. Organismo arautzaile gisan jardungo du sare mugikorren eta Interneten erabiltzaileen eskubideak babesteko, EBko edozein lekutan.
- Terrorismoaren Kontrako Europako Agentzia berriak Europako hiri handietan atentatu larririk ez gertatzen eta prebenitzen lagunduko du, sistematikoki jokatuz susmagarrien arrastoari segitzen eta susmagarriak seinalatzeko. Polizia-agintari nazionalak errazago izango dute gaizkileen gaineko informazio biometrikoa jasotzen duten datu-base europarrak kontsultatzea.
- Muga eta Kosten Guardiak bere gain hartuko du, erabat, kanpoko mugen gestioa.
- Soldatak, legedia soziala eta zerga-maila oso ezberdinak izango dira Europan.
- Automobil fabrikatzaileek engainatu dituzten kontsumitzaile europarrek ziur daukate EBk enpresa horiei zigorra jarriko diela eta konpentsazioen bat jasoko dutela.
- Nekazariak erraz eta denbora errealean izango dituzte eskura bai datu meteorologikoak bai uzten kudeaketari buruzko datuak ere, erabat operatibo izango den satelite-sistema europarrari esker.

## 4. Aurrera egiteko bidea

Europar duela hirurogei urte ezinezko ziruditen aurrerapausoak segurutzat jotzen dira gaur egun. Gure egun ilunenak ere argi goak izango dira Ventotenen giltzapetutako gure arbasoen edozein egun baino.

Halako gogo ameslariek ere ezin zitzaizkion EBk ekarri dizkigun askatasun, eskubide eta aukerak imajinatu. Urteurrena ospatzen ari den Europa batu honetan, gure konpromisoa biziberritzeko garaia dugu, harrotasuna berriz deskubritzeko eta gure-gure etorkizuna konfiguratzeko.

Beharbada saihestu ezina izango da aldaketa, baina guretzat nahi duguna eta estimatzen ditugun balio europarrak, horietan ez da aldaketarik. Bakearen, askatasunaren, tolerantziaren eta elkartasunaren gainetik beste ezer ez duen gizartea nahi dugu. Hainbat iritziri eta prentsa kritikiko, independente eta askeari tartea uzten dion demokrazian bizi nahi dugu. Adierazpen-askatasuna nahi dugu, eta ziurtasuna eduki ez inor ez inongo instituzio ez dagoela legearen gainetik. Herritar guztiei eta estatu kide guztiei tratua bera emango dien Europar Batasuna nahi dugu.

Gurea baino bizi hobea eman nahi diegu seme-alabei.

Hemen azaldu ditugun agertokietatik errealtatetik hurbilen dagoena zein den aintzat hartu gabe, balio eta nahi hauek europarron batugarri izango dira, eta, horrenbestez, merezi du haien alde borroka egitea.

Lehentasun nazionalak konbinatzen dituen proiektu bateratua da EB, estatuko subiranotasun nazionalak borondatez lagata taxutu dena, interes nazional eta kolektiboak ahalik eta ondoen zerbitzatzeko asmoz. Ez da lan erraza izan beti, ezta lan perfektua ere, baina aski erakutsi du EBk moldatzeko gaia eduki, baduela eta luzetara begira asko balio duela. “Anitz bezain batu” leloaren arabera, bai EB eta bai estatu kideak gai izan dira nazio bakoitzak bere indar eta oparotasunak ahal bezain gehien aprobetxatzeko, eta, hala, inoiz ez bezalako aurrerapausoak egiteko.

Mundu hau hain gorabeheratsua izanik, isolamendua oso liluragarri izan daiteke batzuentzat, baina banatu eta bakoitzak berea egiteak ondorio latzak leharzkieke. Herrialde eta herritar europarren banaketa nagusi zen iraganera eramango lituzke berriz, eta botere ahaltsuagoen interes men geratuko ginatke.

Aukera egin behar du Europak. Erronka bezainbat aukera badira. Europaren garaia izan daiteke orain,

baina borondate beraz hogeita zazpi estatuak batera jardunik besterik ezingo dugu emaitza ekarri.

Europak hurrengo urteetan zer aurrerabide izan behar lukeen aztertzeke eztabaida zabala eta zintzoa piztu nahi luke Liburu Zuri honek. Denei entzun behar zaie. Europako Batzordeak, Europako Parlamentuarekin eta interesa duten estatu kideekin batera, “Europako etorkizunari buruzko eztabaidak” antolatuko ditu Europako parlamentu nazionaletan, hirietan eta eskualdeetan. Ehunka milioi europarren ideiak eta adorea izango dira gure aurrerabidearen katalizatzaile.

Erromako Gailurrari Europako Batzordeak egin nahi izan dion ekarpena baita Liburu Zuri hau. Urteurren guztietan bezala, azkeneko hirurogei urteetako arrakastaz gogoetan jarduteko abagunea izango dugu Erroma. Nolanahi, hogeita zazpi urteetako Europak bere batasunaren inguruan erabaki bateratuak hartzeko prozesuaren aurreneko urratsa ere bada.

Europako Batzordeak badu zer emanik eztabaida horretan, eta hurrengo hilabeteetan honako gai hauei buruz gogoeta pizteko agiriak prestatuko ditu:

- Europaren dimentsio sozialaren garapena;
- batasun ekonomikoa eta moneta-batasuna areagotzea, bost lehendakariak 2015eko ekainean prestatutako txostena oinarri hartuta;
- globalizazioari onura ateratzea;
- Europaren defentsaren etorkizuna;
- EBko finantzen etorkizuna.

Honako Liburu Zuri honek bezalatsu, Europa 2025erako hainbat ideia, proposamen, aukera edo agertoki bilduko dituzte agiriok, une honetan behin betiko erabakiak hartu gabe ere, eztabaida martxan jartzeko.

Juncker lehendakariak 2017ko Batasunaren Egoerari buruz emango duen hitzaldiak ideia horiek jorratuko ditu, 2017ko abenduan Europako Kontseiluan aurreneko ondorioak atera aurretik. Ekintza-ildo bat zehazten lagunduko du horrek, 2019ko Europako Parlamenturako hauteskundeetarako garaiz garatzeko modukoa.


Gure borondate kolektiboak bultzatuko du Europa. Gure aurreko belaunaldiak bezalaxe, gure eskuetan daukagu Europaren etorkizuna.








---

**ERANSKINAK**

## Liburu Zuriaren prozesua: Erromatik, Europako Parlamenturako 2019ko hauteskundeetara



## Bost agertokiak: politiken ikuspegi panoramikoa

	 <b>Berdin jarraitu</b>	 <b>Merkatu bakarra besterik ez</b>	 <b>Gehiago egin nahi dutenek, gehiago egin</b>	 <b>Gutxiago egin, baina zorrotzago</b>	 <b>Askoz gehiago egin, elkar hartuta</b>
<b>Merkatu bakarra eta merkataritza</b>	Merkatu bakarra indartu egingo da, batik bat energiaren sektorean eta sektore digitalean; EB-27 merkataritzako akordio progresiboan bila ibiliko da	Ondasun eta kapitalen merkatu bakarra sendotuko da; herrialde batzuen eta besteen artean arauak ezberdindu egingo dira; ezin da erabat ziurtatu jendearen eta zerbitzuen zirkulazio librea	«Berdin jarraitu» kasuan bezala, merkatu bakarra indartuko da, eta merkataritza-akordio progresiboak lotzeko ahaleginean jardungo da EB-27	Gutxieneko arau komunak ezarriko dituzte, baina EBn araututa dauden arloetan exekuzioa indartu egingo da; merkataritza EBn bertan lantzen da erabat	Merkatu bakarrak indarra hartuko du, arauak harmonizatuz eta zorrotzago mamituz; harreman komertzialak EBk kudeatuko ditu erabat
<b>Batasun ekonomikoa eta diru-batasuna</b>	Euroaren eremuak gero eta hobeto funtzionatuko du	Euro eremuko kooperazioa mugatua izango da	«Berdin jarraitu» kasuan bezalaxe, besteak beste zerga-sisteman eta arau sozialetan elkarlana sendotu duten herrialde jakin batzuen kasuan izan ezik	Neurriak hartuko dituzte euroaren eremua finkatzeko eta bertako egonkortasuna ziurtatzeko; EB-27 gutxiago jardungo da politika sozialetan eta enplegu-politiken alor batzuetan	Batasuna izango da ekonomian, finantzetan eta aurrekontuetan, 2015eko ekainean bost lehendakariak prestatutako txostenean aurrez ikusi bezala
<b>Schengen, migrazioa eta segurtasuna</b>	Kanpoko mugak kudeatzeko elkarlana areagotu egingo da apurka; asiloa emateko sistema komuna sortzeko aurrerapausoak egingo dira; segurtasun-kontuetan koordinazioa hobetu egingo da	Ez dago politika bateraturik migrazio edo asilo kontuetan; segurtasun-arloko koordinazioa sakontzeko lana bilateralki mamituko da; herrialde barruko mugetako kontrolak sistematikoagoak izango dira	«Berdin jarraitu» kasuan bezala, besteak beste segurtasunean eta justizia-kontuetan elkarlana sendotu duten herrialde jakin batzuen kasuan izan ezik	Kooperazio sistematikoa egongo da mugak kudeatzen, asiloko politiketan eta terrorismoaren kontrako borrokan	«Gutxiago egin, baina zorrotzago» kasuan bezalaxe; muga, asiloaren eta terrorismoaren kontrako borrokan koordinazioa sistematikoa da
<b>Kanpo-politika eta defentsa</b>	Mugaz kanpoko kontuetan ahots bakarrez hitz egiten jarraituko da; defentsan elkarlana estuagoa izango da	Kanpo politikako kontu batzuk bi alderen artean erabakitzen dira gero eta sarriago; defentsako elkarlana gaur bezalakoa da	«Berdin jarraitu» kasuan bezala, koordinazio militarrean eta ekipamendu komunetan zentratuta, segurtasunean eta elkarlana sendotu duten herrialde jakin batzuen kasuan izan ezik	EBk iritzi bakarra izango du kanpo-politikako kontutan; Defentsarako Europar Batasuna sortuko dute	«Gutxiago egin, baina zorrotzago» kasuan bezalaxe, EBk iritzi bakarra izango du kanpo-politikako kontu guztietan; Defentsarako Europar Batasuna sortuko dute
<b>EBko aurrekontua</b>	Apur bat modernizatuko da, EB-27n adostutako erreforma-programa mamitzeko	Beste era batera orientatuko da, merkatu bakarrerako ezinbesteko funtzioak finantzatzeko	«Berdin jarraitu» kasuan bezala; estatu kide batzuek aurrekontuko baliabide gehiago jarriko dute gehiago landu nahi dituzten arlo jakinetarako	Diseinu berria emango zaio, goitik behera, EB-27n adostutako lehentasunetara moldatzeko	Asko modernizatuko eta handituko da, bere baliabide propioetan oinarrituta; aurrekontua egonkortzeko funtzioa izango da euroaren eremuan
<b>Emaitzak lortzeko gaitasuna</b>	Ekintza positiboan programak emaitza zehatzak ekarriko ditu; Erabakiak hartzeko prozesua ulertzen zaila da oraindik; emaitzak lortzeko gaitasuna ez dator beti bat jendearen nahi eta usteekin	Erabakiak hartzeko prozesua errazago ulertzen da seguruenik, baina denak batera jarduteko gaitasuna murrizta da; denen intereseko kontuak aldebiko erabakiz konpondu behar izaten dira maiz	«Berdin jarraitu» kasuan bezala, EB-27ren ekintza-agenda positiboak emaitzak ekarriko ditu; talde batzuek gehiago lortuko dute alor jakin batzuetan elkarrekin jardunik; erabakiak hartzea gero eta konplexuagoa izango da	Lehenesteko edo baztertzeko lanei buruzko hasierako akordioa erronka izango da; erronka hori gainditzean, erabakiak hartzeko prozesua errazago ulertuko da; EBk azkarrago eta zorrotzago jardungo du paper garrantzitsua betetzen duen arloetan	Erabakiak hartzeko prozesua azkarragoa da eta exekuzioa irmoagoa, oro har; EBk estatu kideetatik botere gehiegi xurgatu duelakoan dauden batzuek ardura hartzeko kontuak darabiltzate buruan





**COM(2017) 2025, 2017ko martxoaren 1ekoa**

**Argitaraldia:** 1.a argitaletxe honetan: 2018ko azaroa

**Ale-kopurua:** 150 ale

©Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kampo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Lehendakaritza

**Internet:** [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Itzulpena:** IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

**11. orrialdea:** © AP Photo/Thomas Kienzle

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 • 01010 - Vitoria-Gasteiz

**Inprimaketa:** Gráficas Dosbi, S.L.

**Lege-gordailua:** VI 960-2018

